XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3595

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 31koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako agente teknologikoentzako ordukako gehieneko tarifak, 2013. urtekoak, onartzen dituena.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea arautzeko oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren xedeak dira, batetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea antolatzea, eta, bestetik, Sarean integratuta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Erakundeak koordinatzen laguntzea. Sarean integratuta eta hala kreditatuta dauden agente zientifiko-teknologikoek parte har dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako (I+G+B) jardueren zenbait programatan.

Hala, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako agente zientifiko teknologikoek zenbait laguntza-programa eskura dezakete, hala nola Saiotek programa –funtsezko ikerketarako laguntza-programa–, Etortek programa, –ikerketa estrategikoa sustatzeko laguntza-programa, Industriako sailburuak arautua–, edo Emaitek programa, Zentro teknologikoei eta haien korporazioei eta itun teknologikoei laguntzeko programa.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean integratuta dauden agente zientifiko teknologikoei laguntzak emateko Saiotek Programa arautzen duen Aginduak 8. artikuluan ezartzen duenez, urtero Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak administrazio-ebazpen bat emango du, agente teknologiko guztientzako ordukako gehieneko tarifak onartzen dituena. Ebazpen hori, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aipatutako lege-aginduak, eta oro har eta haiekin bat etorriz aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoentzako 2013ko ekitaldiko ordukako gehieneko tarifak onartzea.

Bigarrena.– Honako hauek izango dira 2013ko ordukako gehieneko tarifak unibertsitateetako ikerketa-zentro, -departamentu, -sekzio, eta -institutuentzat eta bestelako unitateentzat, Bikaintasunezko eta Oinarrizko Ikerketa Zentroentzat, eta Ikerketa-zentroentzat:

Kategoria	Bataz besteko tarifa
G1	93,51.
G2	67,95
G3	52,48
G4	44,53
G5	9,72

Hirugarrena.– Ikerketako Zentro Sektorialentzako eta Ikerketa Erakunde Publikoentzako 2013ko ordukako gehieneko tarifak honako hauek izango dira:

Kategoria	Bataz besteko tarifa
G1	91,94
G2	63,46
G3	42,07
G4	34,25
G5	9,72

Laugarrena.– I+G Unitateentzako (enpresa- eta sanitate-arloetakoak), Berrikuntzako Erakunde Bitartekarientzako, eta Teknologia Parke eta Berrikuntza eta Enpresa Zentroentzako 2013ko ekitaldiko ordukako gehieneko tarifak, berriz, hauek izango dira:

Kategoria	Bataz besteko tarifa
G1	80,92
G2	56.84
G3	42,26
G4	31,92
G5	9,72

Bosgarrena.– Laborategi eta Ziurtapen Erakundeentzako 2013ko ordukako gehieneko tarifak hauek izango dira:

Kategoria	Bataz besteko tarifa
G1	92,76
G2	58,34
G3	40,83
G4	34,63
G5	9,72

Seigarrena.– 2013ko ekitaldian, Euskal Herriko Unibertsitatearen edo herri-administrazioetako erakundeen eta horien menpeko besten batzuen ordukako tarifa 36,49 eurokoa izango da, gehienez, euren plantillako langileentzako, zeharkako kostu moduan; langile horien kostu zuzena ezin izango da inondik ere finantzatu. Proiektua egiteko berariaz kontratatutako langileentzako tarifa, berriz, kostu zuzena izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 31.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTIBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.